

Funtzesko jarduerak

Enpresa batek balio-proposamenaren eskaintza garatzeko, bezeroengana iristeko, bezeroekin harremanak izateko eta, azkenik, diru-sarrerak sortzeko egin behar dituen jarduerak.

Funtsezko jarduerak, honela banatzen dira: ekoizpen-jarduerak, arazoak konpontzeko jarduerak eta plataforma edo sareko jarduerak.

Ekoizpen-jarduerak: Diseinu, egitea eta entrega

Arazoak konpontzeko jarduerak: Jakintzaren kudeaketa eta etengabeko prestakuntza

Plataforma edo sareko jarduerak: Plataformaren kudeaketa, etengabeko mantentze-lanak eta plataformaren sustapena

Funtsezko jarduera batzuk ezin dira kanpora atera; enpresaren barruan egin behar dira beti. Adibidez, jatetxe bat baduzu eta zure arrakastaren gakoa prestatzen dituzun errezeta sekretuak badira, ezin duzu beste enpresa baten esku utzi, prestaketa hori baita zure negozioaren funtsezko jarduera. Beraz, esan dezakegu negozioaren ezagutzarekin, know how-arekin, lotutako guztia ezin dela eskuordetu

Kanpora atera daitezkeen jarduerak

Beste enpresa bati eskuordetu dakizkiokeenak dira, zeregin horietan enpresak berak egiteak ez duelako balio erantsirik ematen. Adibidez: catering zerbitzua, garbiketa, publizitatea, etab.

Kanpora atera ezin diren jarduerak

Gure enpresaren muina osatzen dutenak dira. Babestu egin behar ditugu, daukagun aktiborik garrantzitsuena baitira. Kanpora atera ezin daitekeen jardueraren adibide argi bat Coca Cola formula egitea edo erabiltzea izango litzateke.